

ISSN: 2530-6561
2019ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak

Cristina de la Cruz-Ayuso

Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak

Cristina de la Cruz-Ayuso

Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea.
Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Finantza etikoen oinarriak	5
2. Finantza etikoen izateko arrazoiak: finantza-sistema kapitalista menderakuntza gisa salatzea	6
3. Ekonomia feministak eskaintzen digun lezioa finantza etikoen helburua ulertzeko	8
4. Finantza etikoen ezaugarriak	9
4.1. Elkartasunerako balioa	10
4.2. Mailegu-eskubidea	11
4.3. Finantza etikoen boterea gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzeko	11
5. Gure inguruneko finantza etikoen zenbait esperientzia	12
5.1. Finantza etikoen kartografia arrunta	12
5.2. Ekonomia solidarioak bultzatutako zenbait finantza etikoren esperientziak	13
6. Europako banka etikoa zenbakietan	14
7. Ondorio gisa: finantza etikoen zenbait erronka	17
Bibliografia	18

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.](#)

Egilea: Cristina de la Cruz-Ayuso

hegoak zabalduz - 14. zk. 2019ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Finantza etikoak dira artikulazio politikaren adierazpenik emankorrenetako bat. Finantza etikoen barruan askotariko ekimen eta esperientziak badaude ere, lan honetan ekonomia solidarioak bultzatutakoak soilik hartzen dira aintzakotzat, menderatze-egitura ekonomikoan dauden zenbait gako baztertzailerik azalarazten baititu. Finantza-tresna ez ezik, finantza etikoek jokatzeko proiektu politikoa ere proposatzen dute diruarekin duten harremanean. Horixe da, hain zuzen ere, lan honetan nabarmendu nahi den ezaugarri behinena.

Lehendabizi, finantza etikoen izateko arrazoa eta ikuspuntu honetako oinarri eta iturri teorikoak garatzen dira. Alde batetik, ekonomia solidarioak finantza etikoei egiten dien salaketa garatzen da, eta finantza etikoen balioa aintzatesten da alternatiba ekonomiko gisa. Beste alde batetik, teoria kritikoek, eta haien artean, hain zuzen ere, ekonomia feministak dakarten ikuspuntua gailentzen da finantza etikoen euren helburu politikoa ulertzeko.

Finantza etikoak hiru giltzarriren gainean sostengatzen dira: a) elkartasunaren balioa berrerosten dute ekintza kolektiboaren motor gisa; b) mailegu-eskubidea aitortzea eta betetzeko konpromisoa dute pertsonen askatasuna handitzeko era ez-baztertzailerik eta ekitatiboan; eta c) zirkuitu ekonomikoaren eta laguntza-sareen balioa aintzatesten dute. Ezaugarri horien irismena azaldu eta gero, artikuluan gure inguruneke ekonomia solidarioak bultzatutako zenbait esperientzia aurkezten dira. Halaber, Europako Finantza etikoen egoera azaltzen da. Aipagarria da datuek ematen duten lezioa: finantza etikoek kredituak ematen dituzte ekonomia errealaren garapenerako, eta gizarte- eta ingurumen-irizpide zehatzekin inbertitzen dutenez, erakutsi dute krisien aurrean tradizionalak baino erresistenteagoak direla.

Hitz gakoak: finantza etikoak, gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa, mailegu-eskubidea, gizarte eraldaketa, desberdintasuna, eskubide sozialak eta ekonomikoak.

Abstract: Ethical banking is one of the most fertile expressions of political articulation. Although there are many initiatives and experiences in the framework of ethical banking, only those promoted by the solidarity economy are considered in this work. This paper aims to highlight that, apart from a financial instrument, they also mean a political project for the ethical banking in its relationship with money.

First, this article will develop the *raison d'être* of ethical banking and the theoretical bases and sources of this approach from a twofold approach. On the one hand, this paper will analyse the critical approach of the solidarity economy to traditional banking, and its value as an economic alternative. On the other hand, critical theories, including the perspective of feminist economics, enable the understanding of this *raison d'être* and the political objective of ethical banking.

Ethical banking is based on three main aspects: a) the value of solidarity as the motor of collective action; b) the recognition of the right to borrow and its commitment to the freedom of people in a non-discriminatory and equitable manner; and c) the value of economic circuits and support networks. After explaining the scope of these characteristics, the article presents a series of experiences driven by the solidarity economy in our context. It also examines the situation of European ethical banking. Finally, some relevant conclusions and remarks will be provided, specially those relying on the data: ethical banking gives credits for the development of the real economy, invests in specific social and environmental criteria, and has proved to be more resilient than traditional ones.

Keywords: ethical banking, social and solidarity economy, right to credit, social transformation, inequality, social and economic rights.

Sarrera

Finantza etikoei buruz hitz egiteak dakarren lehendabiziko eragozpena da etengabe handitzen ari direla dinamismo eta aniztasun handiekin; beraz, ez dira era bakarrekoak. Aurkitu ahal ditugu mikrofinantza erakundeak, araututako nazioarteko erakundeak, mailegu edo finantza-zerbitzuen kooperatibak, hurbiltasuneko aurrezkien tokiko taldeak edo bitartekaritza lanak egiten dituzten elkarteak edo fundazioak. Finantza etikoen mundua anitza da, eta kolore asko ditu. Era berean, anitzak dira ekimen horiek dituzten forma juridikoak, garatzeko eta hazteko duten egitura soziala, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak. Finantza etikoek duten aniztasun hori eztabaidaezineko balioa da, beren aberastasunagatik eta duten eraldatzeko gaitasunagatik.

Dena den, anitzak eta irismen desberdinekoak izateagatik ez dugu pentsatu behar isolatuak eta irismen txikikoak direnik. Kontra-kontrakoa. Horietako askok oso oinarri sendoa dute, eta mailegu-eskubidea errealitate bihurtzen ari dira arlo ekonomikoan. Ekimen horiei guztiei "finantza etikoak" deritze. Haietako asko daude Banka Baliiodunaren aldeko Aliantza Globalean (BBAG)¹, Europako banku etiko eta alternatiboen federazioan (Febea)² eta Ekonomia sozialeko inbertsioen nazioarteko elkartean (Inaise)³.

Hala ere, lan honetan⁴ soilik azalduko dira finantza etikoekin zerikusia duten eta ekonomia solidarioaren eremuan kokatzen direnak. Ekimen horiek eduki ekonomikoa dute, baina gaur egungo sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren guztiz kontrakoak dira. Historia luzea dute: saiatu dira ekonomia jartzen pertsonen zerbitzura, eraikitzen dira elkartasun eta partaidetza demokratikoen ereduarekin, eta berreskuratu nahi dituzte eraldatzeko sareak. Azken finean, horiek dira gaur egungo alternatiba ekonomikoaren zenbait ekimenek dituzten ezaugarrien adibideak. Horiek guztiak benetako finantza etikoak dira: ekimen horien ustez, finantza-baliabideak jendearenak eta jendearentzat dira, eta, era berean, jakina, jendearekin eta jendeak kudeatuta.

Lan honetan, alde batetik, deskribatu nahi ditugu ekimen horiek partekatzen dituzten ezaugarriak, eta, beste alde batetik, azpimarratu nahi dugu euren garrantzia gaurko testuinguru ekonomikoan. Gure helburua da deskribatzea finantza etikoen ekimenaren proposamenen artikulazioa, finantza etikoak gizartea eraldatzeko konprometituta dauden ekintza-sare kolektibo gisa ulertuta.

1. Finantza etikoen oinarriak

Lehenik eta behin, finantza etikoak giza ekonomia eta ekonomia solidarioaren aldaeretako bat dira, eta, horien bitartez, martxan jarri nahi dira arlo ekonomikoaren beste logika eta prozesu batzuk. Finantza etikoak beharrezkoak dira ziklo ekonomiko osoa osatzeko (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa). Ikuspuntu horretatik, esan daiteke finantza etikoek balio instrumentala dutela ekonomia solidarioaren garapenerako.

Bigarrenik, finantza-tresna ez ezik, finantza etikoek jokatzeko tresna politikoa ere proposatzen dute, diruarekin duten harremanean. Pertsonak eguneroko kontsumoan duten beste alderdi batzuetan bezala, finantza

-
- 1 Banka Baliiodunaren aldeko Aliantza Globala banku-sare independentea da, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko garapen jasagarria emateko finantzaketaren bitartez (2019ko ekainaren 22an kontsultatuta), hemen dago eskuragarri [<http://www.gabv.org/>].
 - 2 FEBEA Europako Banku etiko eta alternatiboen federazioa da, irabazi-asmorik gabeko elkartea. Bruselan sortu zen, 2001ean, Belgikako legearen babesarekin (2019ko ekainaren 22an kontsultatuta), hemen dago eskuragarri [www.febea.org].
 - 3 INAISE Ekonomia sozialeko inbertsoreen nazioarteko sare bat da. Bartzelonan sortua 1989an, bere helburua da gizarte eta ingurumen proiektuak finantzatzea (2019ko ekainaren 22an kontsultatuta), hemen dago eskuragarri [www.inaise.org].
 - 4 Lan honek egilearen beste batzuk kontuan hartzen ditu (ikus atxikitako bibliografia azken atalean). 15 urteko boluntario lanez betetako ekimen horietan (Fiare Banca Etica, hain zuzen), esperientzia eta ezagutza handitzeaz gainera, funtsezko eragile pribilegiatua ere izan da finantza etikoei buruz pentsatzeko.

etikoek proposatzen dute *gizartea eraldatzeko militantzia ekonomikoa*, ezen gure diruaren erabilpenak lagundu baitezake sistema ekonomikoa jarraitzen, edo, aldiz, lagundu baitezake justuagoak, bidezkoagoak eta solidarioagoak diren eredu alternatiboak ezartzen. Horrexegatik, esan daiteke finantza etikoak ekonomia solidarioaren proiektu politikoak direla. Praktika batzuetan oinarrituta, finantza-harremanak demokratizatu nahi dituzte, botere sozialeko era berriak ekartzeko. Kultura modernoan trebatzen ez gaituzten zenbait balio erreskatatzen ditu finantza-bitartekotzaren arlorako. Balio horiek merkatu konbentzionalaren alternatiba erradikalak bihurtu dira: elkartasunaren balioa, konfiantza, hurbiltasuna, tokian tokiko balioa eta giza harremanen kalitatea, irabazteko asmorik eza, lankidetzeta eta parte-hartzea. Harremanetarako ongiak gisa ulertuta, "besteekin lotzen gaituen indar zail baina sendoaren baieztapena" ahalbidetzen dute (Illouz, 2013:11). Horiek erabat izaera politikoa duten jarduerak dira: "politikoa denarekin eta jarduera politikarekin nolabaiteko harremanetan sartzeko ezinbestean, horiek guztiak kapitalismoak berezkoak dituen birproduktzio interbentzioetan aurkitzen dira: izan ere, gaur egun, neoliberalismoan gauzatzen dira, eta behar dira alde alde jarri, negoziatu, edo behintzat solastu, beren agenteekin" (Corragio, 2011:167).

Finantza etikoaren gai nagusiak dira, baina praktikaren bitartez gauzatu da beste razionalitate eta logika-botere batzuen tematizazioa. Finantza etikoek proposatzen dituzte kapitala metatzean oinarritzen ez diren finantza alternatiboaren eraikitze kolektiboaren ereduak: alde batetik, elkartasun eta erantzukizun partekatuko finantza-harremanen logika oinarrituta, pertsonak eta organizazioak lotzen eta mugiarazten dituzte; eta, halaber, mailegu-eskubidea defendatzen dute (Cruz-Ayuso, 2013; 2014).

Finantza etikoko ekimen horiek dira diskurtso ekonomiko konbentzionalaren berrikuspen sakonak behar dituzten muga-gaietako batzuk: partaidetza era berriak, oinarrian dituzten botere-logikak, interes pribatuaren eta ekintza kolektiboaren arteko tentsioak harmonizatze behar diren orekak, mailegu-eskubidearen esparru etiko eta politikoak, sustatzen dituzten instituzionalizazio-prozesuak eta abar (Carrasco, 2006).

Jarduera horien bitartez, bilatzen da merkatuko ekonomia monetizatuak duen egitura menderatzailea eta baztertzaila "irrazionalizatzea". Praktika horiek marko zabalagoa eskaintzen dute elkartasuneko ekonomiatik sustatzen diren esperientzien balioa sartzeko, eta, horrela, mikropolitikak ikasteko esparru bihurtzen dira. Mikropolitika horiek eskatzen dute "bizitza hobe baterako beste ekonomia bat, bizitzaren jasangarritasunarekin zerikusia duten prozesuen sustapena eta defentsa helburu izatea" (Askunze, 2014).

2. Finantza etikoen izateko arrazoia: finantza-sistema kapitalista menderakuntza gisa salatzea

Justiziar buruzko hausnarketaren muinean, menderakuntza da giltzarria; izan ere, hortik ulertu behar da ekonomia solidarioa sustatzen duten finantza etikoen zerizana. Finantzen arloko egitura ekonomikoak kapitala pilatzeko logikaren arabera garatzen dira⁵, eta menderakuntza eragiten duten botere-harreman batzuen inguruan artikulatzen dira (Young, 2011). Finantza etikoek, sistema kapitalistak berezkoa duen egiturazko injustiziar aurre egitea bilatzen dute. Eraldatze-eragileak izan nahi dute. Horretarako, beste irizpide eta baldintza batzuekin jarduten duten egitura alternatiboak garatu nahi dituzte. Abiapuntu hori garrantzitsua da finantza etikoen helburuak zehazteko; izan ere, bere planteamendua ez da abiatzen sistema kapitalistak duen aberastasun banaketaren irizpidearen salaketatik, irizpidetik beretik baizik.

Egiturazko harremanek eta arauak jasotzen dituzte finantza-sistema konbentzionalen eragiten dituzten menderakuntza-dinamiken ondasun materialen banaketa-irizpideak; baina, aldi berean, hainbat alderdi barne hartzen dituzte, hala nola botere-harremanak, erabakiak hartzeko prozesuak, araudi jakin bat,

5 Garrantzitsua da adieraztea pilatzeko logika hori arrazionaltasun instrumentalaren gako gisa ikusi ohi dela. Hala ere, Stimilliren hitzetan, "ondasunak ekoiztea, zerbitzuak eskaintzea, salgaiak trukitzea eta, azken finean, bereganatzea eta erabilgarritasun eta interes pertsonala asetzea bultzatzeko arrazionaltasun instrumentala bakarrik ez da nahikoa munduko ekonomiaren egoera azaltzeko" (Stimilli, 2014:45). Pilatzearen logika hori, gaur egun, ikuspuntu zabalago batetik analizatu behar da, bere oinarri nagusia mozkinak lortze hutsagatik mozkinak lortzea izanik.

informazioaren (a)simetria, erabiltzaileen kultura finantzarioa (handia edo urria), eta baita denboraren kudeaketa ere, banaketa-logika horretaz haraindi.

Banaketaren inguruko patroia horretan kontzentratzen diren analisisiez haraindi joan behar da, eta prozesuetan kontzentratzen den harremanen ikuspuntura ireki. Young-ek zioenez, menderakuntza da "jendeari bere ekintzen zehazpenean edo baldintzetan parte hartzea ezintzen dioten baldintza instituzionalak izatea" (Young, 2000: 68). Menderakuntzak gure ekintzetan aktiboki parte hartzea ezintzen du, eta, zalantzarik gabe, eredu ekonomiko hegemonikoak eragin garrantzitsua, kezkagarria eta gero eta handiagoa du gero eta pertsona gehiagoren autonomia finantzarioan eta beren eskubide ekonomikoen garapenean.

Finantza-arloak, sistema kapitalistan, bazterkeria-mota jakin bat ez ezik, logika kapitalistan erabat naturalizatuta eta integratuta dagoen zapalkuntza eta kontrol mota bat ere eragiten du. Eragiten dituen botere-harremanek eta hedapenak bazterkeriaren eta inklusioaren arteko harreman kontraesankorra eragiten dute, menderakuntzarako egiturazko baldintzen isilpeko adostasunaren bitartez antolatuz. Finantza-sistematik kanpo uzten direnak dira diruaren⁶ bitartez ondasun jakin batzuk lortu ezin dituztenak, eta, paradoxikoki, beren bizitza baldintzatzen jarraitzen duen sistema batetik baztertuta daudenak. Baztertuta daude, baina, edozein kasutan, periferikoki, aldi berean ordena kapitalista hegemonikoak garapenerako inposatzen dituen erregulazio -eta kontrol- hedapenetan jasota daude. Kapitalismoan bazterkeria kapitalaren nagusitasunaren adierazpen bat baino ez da, "gizarte-harremanak hierarkizatzen dituen, ordena bat ezartzen duen, harremanak zehazten dituen eta, ondorioz, logika konstitutibo bat – kapitalaren balorizazioa– duen" botere subirano batena (Osorio, 2012:69).

Ikuspegi horren arabera, kapitalismoaren sistema nonetarioak eta kredituarenak harremanen logika asimetriko bat sustatzen du eta kapitalaren jabetza dutenen eta ez dutenen, hartzekodunen eta zordunen, arteko menderakuntza mekanismoak indartzen ditu. Kreditua eta zorra kapitalismoaren menderakuntza-tresna bilakatzen dira: finantzen arloan ikusten diren elkarrekintza ugari bustitzen dituzten gizarte-kontrolerako baliabide ahaltsuak dira. Kontsumoaren bitartez, harreman iraunkorra dugu betiereko "zordun" bilakatu nahi gaituen ekonomia horrekin.

Iritzi askok azalarazi dute kreditua-zorra binomioaren inguruko esklabotza-mota hori, eta egile batzuek zorpetzearen ekonomia gisa deskribatu dute (Ingham, 2004; Graeber, 2012; Lazzarato, 2013). Kreditua gizarte osoa antolatzeko baliabide bilakatu da: finantza-tresna hori oinarri hartuta, kapitalismo finantziarizatuaren testuinguruan guztiz bideragarriak diren eta onartuta dauden botere- eta ustiapen-harremanak egituratzen dira, eta, horrela, Isidro Lópezek dioenez, "etorkizunean kredituarekin erlazionatuta egongo diren erabaki garrantzitsuak ezin dira teknikoak izan, politikoak baizik, eta gizartea finantzen menpe uztea arbuiatzeko eta gainditzeko bezain sakonak izan behar dute, bestela esanda, kapitalak gure gizartei egiten dien xantaiarekin bukatu behar da" (López, 2013: 57).

Argudio horiek interesgarriak badira ere, badirudi ez dutela behar beste kontuan hartzen pentsamendu neoliberalaren oinarria hertsiki normatiboa dela. Hortaz, nahiz eta botere horiek gure gizartean dituzten ondorioak eta irismenak azaltzeko argudioak sendoak eta ukaezinak diren, ez dute batere aldatzen haren balio-markoa.

Horrexegatik da beharrezkoa beste esanahi batzuk sustatzea; alegia, beste proposamen eta beste praktika batzuk, ez lotzeko konfiantza bezalako balio bat kaudimenarekin, adiera bakarrean, era bakarrean; hau da, ez ditzaten bihurtu itzultzeko berme ekonomikoak erlazio etiko bakarria bitartekaritzan; ez ditzaten bihurtu

6 Gure gizartean, ordaintzea da era bakarria dirua balio duten gauzak (gehienak, alegia) izateko eta erabiltzeko. Jabego pribatua zentzu kontserbadorean oinarritutako ekonomia-merkatuan, ondasunen jabeek erabakitzen dute diruak egiten duenak mugatzen duela zer egin ahal dugun. Hitzarmenak eta truke pribatuak egiteko norberaren askatasunak eragiten die kontraktualki merkatuan parte hartzen dutenei bakarrik. Horrela, "ondasun eta zerbitzu pribatuak, eta estatuko asko, ezin dira eskuratu diruaren truke ez bada; lortzeko, dirua ematea beharrezkoa da, eta, aldi berean, nahikoa" (Cohen, 2006. 61). Gainera, beharrezkoa da aitortzea kapitalismoak defendatzen duen jabegoa bateraezina dela "gizarte librea" nahiarekin. Jabegoa ikuspegi etiko batetik ulertzen bada (autonomia babestea eta pertsonen bizitzeko era independentea ematea baino ez dena), izan behar du zabala eta ekitatiboki birbanatua.

kredituak giza harremanak lehertzen dituen mekanismo baztertzailer. "Maileguak ematea" gaitasun bat da, eta horri zentzua eta balioa ematen dioten elementuetan geratzea garrantzitsua da. Finantza etikoen helburua bitartekaritza bide alternatiboak aurkitzea da eta, horretarako, solbentzia ez izatea eragile baztertzailer maileguak emateko.

3. Ekonomia feministak eskaintzen digun lezioa finantza etikoen helburua ulertzeko

Aurreko justifikazioa sendotzeko eta finantza etikoen arrazoi-izaera eta helburua sakonki ulertzeko, teoria kritikoetatik eta ekonomia feministatik datorren irakurketara jo behar dugu.

Teoria kritikoek hainbat prismaren bitartez jorratu dute sistema kapitalistaren eta bere hegemonia instituzional nahiz politikoaren funtzionamenduaren inguruko analisi bat. Guztiak saiatzen dira errealitate ekonomikoaren irudikapenak eraikitzekeo analisi-gunea hedatzen. Horretarako, kapitalaren kulturak errealitate ekonomikoaz altxerakoan iraindu dituen alderdi eta ezaugarri garrantzitsuak aintzat hartu behar direla aldarrikatzen dute. Ekonomia ekologikoak azpimarratu du sistema ekonomikoaren errealitatearen beste sistema bat bezala, irekia eta Biosferan sartua, ikustearen garrantzia. Ekonomia feministak zalantza jarri du esparru ekonomikoari egozten zaion izaera neutroa, eta orain arte aldezinak ziruditen kategoria ekonomikoak birplanteatzera behartzen duten hainbat dimentsio (hala nola zaintzarena) eta esparru (etxekoa, adibidez) aldarrikatu dituzte. Ekonomia politiko kritikoak sistema eta harreman sozialen garrantzia azpimarratu du, eta, hala, "botereak" harreman ekonomikoak artikulatzen dituen egiturazko elementu gisa duen garrantzia gailendu da.

Eredu ekonomiko kapitalista arazo gisa ikustea ahalbidetu duten ikuspegi kritikoak dira, eta, azken finean, beste begirada bat eskaintzen dute, baita benetako emantzipazioaren aldeko konpromiso bat ere.

Hain zuzen ere, ekonomia feministak sakonki jartzen du zalantza ohiko diskurtso ekonomikoaren, eta aintzatesten du gizartearen antolamenduaren esparru guztiak bustitzen dituen desberdinkeriaaren egitura-dimentsioa.

Ekonomia feministak "bizitza hobe baterako beste ekonomia bat" aldarrikatzen du. Bizitzaren iraunkortasunarekin erlazioatutako prozesuak sustatu eta defendatzea helburu du. Prozesu horiek sozialak, politikoak, ekonomikoak, kulturalak edo ingurumen-arlokoak dira. Ekonomia feministak behin eta berriro salatzen du ekonomiatik eta antzeko esparruetatik pertsonen bizi-baldintzei egozten zaion garrantzia, eta ordena ekonomikoaren eta ordena soziala "beste modu batean" (modu zuzenagoan) erlazioatzea ahalbidetzen diguten beste lankidetzaren modu batzuk aldarrikatzen ditu.

Zehazki, ekonomia feministak auzitan jartzen du diruak gure gizartean duen esanahia. Diskurtso hori bere irismen ideologikoa baloratu gabe errepikatu ohi dugu, eta kontzientzia falta horrek nola betikotzen duen aintzat hartu gabe. Menderakuntza-modu maskulinoek zuzeneko harremana izan dute kapitalismo modernoaren garapenarekin eta presarekin. Soldada, dirua, finantza... ez dira kontzeptu ekonomikoak, kontzeptu ekonomiko generizatuak baizik, eta generoa ekonomia politikorako inguruabar huts izatea galarazi dute. Gure ustez, dirua arriskutsua da, eta gizarte-harremanak suntsitzen ditu, baina, aldi berean, bideratzen dituen transakzio ekonomikoetan duen balio neutroa aintzatesten diogu. Ekonomia feministak arazo gisa ikusten ditu, eta birplanteatu egiten ditu bi gai horiek. Batetik, esparru ekonomikoaren giza errealitatearen berezko faktoreak dituen prozesu baten emaitza da. Diruaren aldaerak eta erabilerak nabarmenki aldatu eta areagotu dira. "Jendeak diru-klaseak modu desberdin batean ikusten edo sentitzen ditu, eta, gainera, helburu desberdinetarako gastatzen, aurrezten edo ematen ditu, arazoi desberdinengatik eta pertsona desberdinei" (Zelizer, 2011: 268). Naturaren inguruko diskurtsoa eta diruaren irismena merkatukoa ez den logika batean oinarrituz eraikitzen da, eta bere esanahia oso modu garrantzitsuan ikusten da arazo gisa, eta birplanteatu egiten da. Ekonomia feminista oso aktiboa izan da zentzu horretan, eta finantza etikoen ekimenek posible dena areagotu dute esanahi horren harira, esperientzia zehatz eta "errealen" bitartez.

Ekonomia monetizatuaren inguruko kritika feministetatik lezio bat ateratzen da: diruak askatasuna ematen die pertsoneri, eta askatasun hori egituratzen du. Dirua ez da askatasun mota bat. Alabaina, askatasuna ematen du. Gure gizartean, inori uka ez diezaioten dirua balio duten gauzak (gauza gehienak) eskuratzea eta erabiltzea, diruarekin ordaindu behar dira nahitaez. Merkatuko ekonomia batean, jabetza pribatuaren zentzu kontserbadorean oinarrituta, ondasunen jabeek erabakitzen dute nire diruak esan behar duela zer egin dezakedan. Akordioak edo truke pribatuak adosteko askatasunak merkatuan parte hartzen duten aldeak bakarrik konprometitzen ditu kontratu bidez. Horrela, "ondasun eta zerbitzu pribatuak eta estatuko asko diruaren bitartez bakarrik lor daitezke; ondasun eta zerbitzu horiek lortzeko, dirua entregatzea beharrezkoa eta nahikoa da aldi berean" (Cohen, 2000: 61). Behar jakin batzuk bermatzeko modu bakarra "merkatua" denez, dirua "nahitaezko" gaitasun-baldintza bilakatzen den baliabide sozial bat da. Finantza-arterkaritza zedarrizterakoan, bi alderdi horien artean dagoen harreman estua ez da neutroa. Ezta kalterik gabea ere.

Bestalde, ez da egia dirua arrisksua denik eta gizarte-harremanak suntsitzen dituenik. Dirua trukeerako baliabide unibertuala da. Walzer-en hitzetan (1993), oso komenigarria da; izan ere, truke hori erabakigarria da beste gizon eta emakume batzuekin batera igarotzen dugun bizitzan. Diruari egozten diogun balio sozialaren bitartez lotura sozial aldakorak definitzen ditugu. Badakigu kapitala (ez bakarrik dirua) desberdinkeria eragiten duen tresnarik ahaltsuenetakoa bat dela, baina diruaren inguruan eraiki ditugun gizarte-harremanen historiak, era berean, ohiko ekonomia sustatu duten sistema nagusituen aurrean erantzuteko beste modu batzuk ere erakusten dizkigu, eta, batzuetan, truke-sistemak logika desberdinen bitartez aldatzen ditu. Ekonomia solidarioak, "azoka sozialak", "finantza etikoak" eta antzeko ekimenek ekonomiaren esanahi sozial jakin batzuen garrantzia islatzen dute, baita gizarteko jokabideetan duten eragina ere.

Ekonomia feministak kritikatu du pilaketaren logikak zuzentzen duen sistema ekonomikoa aske eta mugagabe gisa ikustea. Horren ordez, logika sozial desberdin bat proposatzen du, beharrak asetzen eta irabazia eta errentagarritasuna automatikoki lotzen ez dituen eta *bizitzaren iraunkortasunaren* ideia azpimarratzen duena. Gizarte batean bizitza mantentzen duten baldintza materialak kritikoki analizatzen eta planteatzen ditu: merkatuek nola diharduten ulertzea ez da berez interesgarria; izan ere, beharrak asetzea eta sortzea nola eragozten edo bultzatzen duten jakitea ahalbidetzen duelako da interesgarria. Gainera, ondasunen eta zerbitzuen elementu erabakigarria ez da merkatuan trukatzeko diren ala ez, giza beharrak asetzen dituzten eta nola egiten duten baizik.

4. Finantza etikoen ezaugarriak

Finantza etikoak ekonomia solidarioaren proiektu politikoak dira: i) elkartasuna sustatzen dute, justizia eredu gisa; ii) prozesu arduratsuak indartzen dituzte, elkarri lotuta dauden giza harremanen bitartez; eta iii) nagusiki posible dira, ekintza kolektiboaren bitartez.

Ekonomia solidarioak pertsonen askatasunen birbanatze ez-baztertzailerak eraikitzea proposatzen du, ibilbide ekonomiko alternatiboa berreskuratzeko eta bermatzeko (ikuspegi askatzaile batetik). Horrela, finantza etikoak, finantza-tresna boteretsua ez ezik, politikoa ere bihurtuko dira; izan ere, menderatze-egitura ekonomikoan dauden zenbait gako baztertzailerak azalarazten ditu. Gure gizartean, askatasuna ulertzeko era horiek uzten dute jende asko desabantaila sozialean eta bazterkerian, sistematik baztertzeko hondakinak balira bezala⁷. Horrek agerian uzten du gizartean dagoen arrakala soziala gero eta handiagoa dela, eta, halaber, azalarazten ditu egiturazko baztertzeko-egoerak; hala ere, oraindik ez da araudi-markorik aurkitu, irtenbide bat emateko.

7 Gure gizarteetan ekonomia ulertzeko modu horrek uzten du gizarteko gero eta jende gehiago baztertuta, eta egoera desabantailatsuan; erabili eta botatzeko elementu gisa agertzen da. Horri dagokionez, aipatzekoa da Bauman-ek (2011) kalte kolateralak kontzeptua nola eramaten duen soziologia kritikorearen esparrura, gizarte-desberdinkerien, horren inplikazioen eta kostuen berri emateko. Gaur egungo munduan, pobreei aukerak eta eskubideak kentzen zaizkie, eta, horrela, kontsumoak bideratzen dituen ekonomiaren eta politikaren kalte kolateral bilakatzeko hautagai "natural" bihurtzen dira. Horrek erakusten du gizartean gero eta desberdintasun handiagoak daudela; eta, gainera, zoritxarrez, agerian uzten ditu oraindik arau-esparru egokirik ez duten egiturazko diskriminazio-egoerak.

Batetik, finantza etikoek pertsonak mugiarazten dituzten egiturak katalizatzen dituzte, bai eta elkartasuna balio eraldatzaile gisa eskatzen duten erakundeak ere; bestetik, halaber, aukera-estruturak sortzen dituzte finantza-sistematik bazterturik dauden pertsonentzat.

Beharrezkoa da azpimarratzea finantza etikoek duten berezko ezaugarria, gizarteak eraldatzeko tresna izateko. Finantza etikoek jasotzen dituzte elkartasunaren balio politiko eta eraldatzailea aldarrikatu eta mugitu nahi duten pertsonak eta egiturak, eta, era berean, egiturak sortzen dituzte aukerak izateko finantza-sistematik bazterturik geratu diren pertsonentzat.

Finantza etikoko ekimen horiek proposatzen dituzten parte hartzeko erak (beren botere logikoaren oinarriak, mailegu eskubiderako inguru etiko eta politikoa, sustatzen dituzten instituzionalizazio prozesuak eta abar) beren izaera alternatiboa zertan datzan argitzen laguntzen duten muga-auzietako zenbait dira. Horiek duten eraikitze eta hazteko estrategiak hiru giltzarriren gainean eusten dira, eta, era berean, beraien zerizanaren zergatia dira.

4.1. Elkartasunerako balioa

Finantza etikoek duten ezaugarri garrantzitsuenetako bat da finantza-bitartekotzaren arloan duten bokazio politiko handia alternatibak eraikitze eta finkatzeko. Bokazio horrek bultzatzen du herritar konprometitua sareetan artikulatzea, eta elkartasunaren balioa berrerozten du ekintza kolektiboaren motor gisa.

Lehenbizi; batetik, injustiziaren arazoa egiturazko injustizian kokatzen dute, eta elkartasuna bultzatzen dute justizia eredu gisa. Finantza etikoek beren errotiko zentzuan bultzatzen dutena da jokabide solidarioak elkarri lotzea. Horretarako, herritar-sare dentsuetan egituratzen dira, balio batzuen inguruan: bitartekotza soziala, elkartasuna eta inklusio soziala. Finantzaren ikuspuntutik, aurrezkien eta maileguen bitartez egiten da. Aurrezki hori entitatera eramaten da elkartasunagatik, eta ez ahalik eta errentagarritasunik handiena bilatzeko, berezko eskubide batzuei uko egin gabe; esaterako, itzulketa-bermea edo ordainketa ere bai, zenbait kasutan. Horrek, eta ez beste ezerk, azaltzen du finantza etikoek bultzatzen duten finantza-bitartekotzaren ongia. Era horretan, finantza etikoak egitura bat bezala har daitezke justizia eraikitze finantza-bitartekotzaren arloan; izan ere, egitura horrek harreman ekonomiko ez-baztertzaila bultzatzen du, elkartasunaren eta banakako edo erantzukizun kolektiboaren bitartez.

Merkatuak erabat injustuak diren banaketa ez-berdintzaileak bultzatzen ditu, eta horrek ekartzen du arlo ekonomikoaren banaketaren irizpidea "dirua, daukanak eraman dezala" izatea (Ovejero, 2008:115). Hala ere, finantza etikoek finantza-bitartekotzan mailegu-eskubidearen garrantzia azpimarratzen dutenean, zentratzen dute begirada (eta itzultzen dute) bankuen oinarriko funtzioan, eta, esan bezala, aurrezki eta mailegua lotzea baino ez dena, edo, zentzu erradikalagoan adierazita, aurrezkiak uzten dituzten *personen* eskubideak eta mailegua eskatzen dutenenak.

Mailegu-eskubidearen aitortze eraginkorrek konprometituta, finantza etikoek finantzaketa emateko dituzten irizpideak *birsortzaileak* dira guztiz. Lortu nahi dena da finantza-jarduerak bere jardura espekulatzailaekin ez kaltetzea ekonomia erreala, edo injustiziak edo ingurugiroaren desorekak sor ditzaketen praktikak ekiditea. Finantza etikoek onartu dute ezin dela planteatu ekonomia alternatiboaren jardura ekonomikoaren eredu bat, kontuan hartzen ez badira urrakortasuna, hauskortasuna, babesik eza edo bazterkeria; izatez, horiek guztiak izan dira. Begirada etikoa ez da *izan behar*-ari buruzko filosofia moralaren "errealitate urrun" dagoen hausnarketa. Errealitate sozialari loturiko etika da, larrialdi sozialak ezagutzen ditu eta ulertzen ditu zeintzuk diren benetako eskakizunak justizia izateko gure gizartean.

Bestetik, arlo politikoari lotutako ardura hartzeko prozesuak errazten ditu. Obligazioan oinarritutako erantzukizun-ideia ez da nahikoa finantza-arloan ematen diren egiturazko injustiziei erantzuteko. Horiek erantzukizun politikoa eskatzen dute; alegia, Youngek konexio soziala deritzon oinarrituta: "egiturazko injustiziak existitzen direnean, pertsona batzuek ekintza injustuak egiten dituztela esateak ez du salbuesten beste pertsonen erantzukizunetik, beraien ekintzek ondorioak laguntzen dituztenean" (Young, 2011: 117).

Horrela, herritarrek aitortzen dutenean finantza-zerbitzuen erabiltzaileek berezkoa duten dimentsio politikoa, finantza etikoak bihurtzen dira elkarrekin partitutako erantzukizun-esparru herritarrentzat. Ikuspegi kritiko horretatik, pertsonak badute ahalmena hiru gauza egiteko: i) zalantzan jartzea ez direla moralki onargarriak finantza tradizionalen "normalizat" hartzen diren baldintzak, eta aitortzea baduela boterea egoera injustuak aldatzeko; ii) sustatzea, finantza-produktuen kontsumitzaileak garen aldetik, beste pertsona batzuentzat urrakortasunik sortzen ez duten ondorioak, eta, ondorioz, lotestea hori eragiten duten prozesuak eraldatzera; eta iii) beste batzuekin lotzea egiturak eraldatzeko, eta lotestea arlo ekonomikoko alternatibak garatzeko.

Finantza-etikoen gaitasun emantzipatzailea konfiantzan, zaintzan eta bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako beste logika eta harreman batzuen inguruan artikulatzen da. Dirua berez ez da beharrezko baliabide bat, baina nahitaezko faktore asetzaile bilakatzen da, merkatua delako behar jakin batzuk asetzeko bide bakarra (Pérez, 2014:110).

4.2. Mailegu-eskubidea

Finantza etikoek duten beste ezaugarri bat mailegu-eskubidea aitortzeko eta betetzeko konpromisoa da. Konpromisoa finantza etikoen lehenbiziko ardatz bihurtu behar da mailegurako eskubidea defendatzeko, pertsonen askatasuna handitzeko era ez-baztertzailan eta ekitatiboan. Hau da, lehenengo eragilea izan behar da finantza etikoen izaera politikoa eta pertsonen askatasunen banaketa ez-baztertzaila eta berdintasunezko baten aldeko konpromisoa.

Mailegu-eskubidea eskubide-berme gisa ulertu behar da; hau da, beste eskubide batzuk ahalbidetzen edo bermatzen dituen eskubide gisa; izan ere, horrek bultzatzen du abian jartzera aitorten hori ahalbidetzen duten beste bide batzuk. Krediturako hurbilketa horrek finantza etikoak bizitzaren iraunkortasunaren eta zaintza-esparruen ikuspuntutik hurbilago kokatzen ditu. Halakoen kezka ez da irabaziak lortzea eta kapitala pilatzea.

Finantza etikoak guztiz kontziente dira garrantzi handikoa dela erabakitzea nori eman edo ez mailegua. Diruarekin zer egin erabakitzeak eskatzen du (ez finantza etikoetan bakarrik, edozein finantza-entitatetan ere bai) balio batzuen arabera jokatzeko. Lehenesten den irizpidea errentagarritasun ekonomikoa bada, unean-unean errentagarritasunik handiena emango duena finantzatzeko da, eta, era horretan, kalkulu numeriko eta aukeraren arabera izango da erabakia, edozein hausnarketa etikotatik kanpo.

Irizpidea finantzatzeko arlo mugatzea bada, eta lehenesten bada ezberdintasun handiaren eta ingurugiroaren desoreken kontrako borroka, finantzatzeko arloak inpaktu sozial positiboa ekarriko dutenak baino ez dira izango, gure gizarteak justuagoak eta jasangarriak egingo dituzten inpaktuak. Esan behar da finantza etikoen barruko ezein entitatek ez duela esaten haiek aritzen diren kreditu-jardueren esparruek bakarrik merezi dutenik maileguak jasotzea. Entitate horiek baieztatzen dutena da haiek arlo jakin batzuetan bakarrik aritzen direla, euren ustez, horietan baitago jokoan, hain zuzen ere, justiziaren benetako izana.

4.3. Finantza etikoen boterea gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzeko

Finantza etikoek hurbiltasunezko zirkuitu ekonomikoen eta laguntza-sareen balioa aintzatesten dute, hainbat baliotan oinarrituz (hala nola hurbiltasuna, konfiantza eta solidaritate okertua). Kritikoak diren ekintza kolektiboko sareetan eraikitzen dira eta finantza-bitartekotza klabe politikoan ulertzen dute. Sare horiek beren balio soziala berreskuratzen ari dira, eta sortzen ari dira eraldatzeko egitura dentsuak, hain zuzen ere, beraiek duten logika ekonomiko ez-baztertzailaren bitartez.

Bestalde, esan dugun bezala, alderdi kulturala erabakigarria da finantza etikoetan. Finantza etikoen zati handi baten oinarrian konfiantza, laguntza, elkarrekikotasuna, solidaritatea eta antzeko balio gehiago daude. Zalantzarik gabe, kultura hori harreman ekonomikoetan sartzea erabakigarria da transformazio-prozesuetan. Alabaina, balio horiek berez prozesu ekonomiko orekatu eta "idealak" errazten dituzten

faktore positibo gisa ikustea ideia zalantzarri samarra da. Horregatik, beharrezkoa izango da balio horiek ekimen horien bitartez zer baldintzatan erreproduzitzen diren analizatu eta eztabaidatzea, sustatzen dituzten transformazio-motak eta -mailak zehazteko.

Amaitzeko, adierazi den bezala, erantzukizun mota hori posible da jarduera kolektiboari esker: auto-organizazioan, parte-hartzean eta gardentasunean oinarritutako finantza etikoko proiektuak garatzeko masa sozial handia behar da, eta inplikazio handiarekin. Ideia hori ezinbestekoa da eraldatze sozialak behar dituen konexioari, hurbiltasunari, elkarrekin lotzeari eta abarri ematen zaien garrantzia ulertzeko. Eraldatze soziala posiblea da ekintza kolektibo eta ekonomia solidarioak sustatzen dituzten prozesuei eta proiektuei lotutako pertsoneri eta erakundeei esker bakarrik, Youngek dioen bezala: "hori gertatzen denean, eta nahiko gutxitan gertatzen da, parte hartzen dutenak (...) dira gehien harritzen direnak, gauzak eraldatzeko duten botereaz jabetzen direnean" (Young, 2011: 105).

5. Gure inguruneke finantza etikoen zenbait esperientzia

5.1. Finantza etikoen kartografia arrunta

Azken urte hauetan, finantza etiko hauen ekimenak asko ugaltu dira. Gehien aurreratu dutenetako bat banka etikoa izan da. Gizarteari gainbalio bat ematen dioten proiektuetan bakarrik inbertitzen du, bereziki hezkuntza, kultur, ingurumen edo/eta giza ikuspegitik. Ikerketa askok aztertu dute banka etikoa, eta frogatu dute zein funtzio garrantzitsua duen finantzaketa-jarduera independente eta berezi gisa.

Finantza etikoek beren gain hartu dute agenteek edozein ondasun eta zerbitzu eskuratzeko aukera berdina izateko eskubidea sustatzea. Horretarako, finantza-sistema saiater da sustatzen moneta- eta finantza-egonkortasuna, bai eta horri eraginkortasunez laguntzen ere, betiere finantza-baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz; sortutako aurrezkiak bideratzen ditu maileguak emateko. Banku etikoek beren bezeroen dirua kudeatzen dute, eta ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpide dituzten inbertsio eta proiektuetara bideratzen dute. Horren helburua da giza arloan, inguruko komunitatean, zerbait erabilgarria sortzea, posibleak ateratze hutsetik baino haratago. Asmo sozial hori dagokie inbertitutako diruaren errendimendu sozialari eta inbertitzaileen ardura sozialari.

Gaur arte, finantza-sisteman, etikari buruzko kezka bi ekarpen ekarri ditu: banku etikoak ezartzea eta inbertsio etikoak edo sozialki arduratsuak diren funtsak jaulkitzea (ISA); hau da, funts horietan zenbait giza baliok (orokorrean ingurumenaren kalitatearekin eta bizitza kalitatearekin dute zerikusia) lehentasuna dute, finantza-balioak (arriskua-errentagarritasuna) baino ez direnen aurrean.

Europak zenbait banku etiko izan ditu. Sarreran aipatu dugun bezala, batzuek bat egin dute Banka Baliadunen Aliantza Globalarekin (BBAG): 2009an ezarri zen kapitalaren finantza-dinamika aztertzeko, bai eta banku jasagarrien eragina neurtzeko ere, ingurumen, finantza eta garapen orokorrean. Gainera, BBAGk ezarri zuen, lehenbiziko aldiz, banka jasagarriari buruzko definizio zehatza, eta ondorengo printzipioak aldeztu zituen:

1. Eraitza sozialak, ekonomikoak eta ingurumenarenak sustatzea, negozio-eredu gisa. Itzulkin soziala lortzeko, banku etikoek gainbalio soziala eskaintzen duten jarduera ekonomikoak finantzatu behar dituzte, eta saihestu egin behar dituzte proiektu espekulatiboak edo irizpide negatiboak dituztenak. Baliabide ekonomikoak onura sozialerako erabiliko dira; lana sortzeko, laneratzeari eta gizarteratzeari laguntzeko, erabilera sozialeko produktu edo zerbitzuak sortzeko, ekoizteko prozesu garbiak sustatzeko, eta abar.
2. Irabazi-asmorik gabeko finantza-kudeaketa abian jartzea, eta euren erabateko izaera soziala erakustea: komunitatean oinarrituta, eta ekonomia errealean zerbitzura.
3. Ulertzea era zuzenean, bezeroekiko harreman luzeen bitartez, jarduera ekonomikoaren sektoreak, bai eta dakartzaten arazoak ere. Aurretzen duenak eskubidea du jakiteko bere dirua nola erabiltzen den, bai eta zein proiektu edo ideia sustatzen diren ere bere diruarekin.

4. Epe luzeko helburuak bultzatzea. Proiektu bideragarrietan inbertituko dira baliabide ekonomikoak; halaber, saihestu egingo da itxaropenak zapuzten dituzten galerak eta baliabideak berriro erabili ezin izatea. Gainera, finantza-era alternatiboen helburu bakarra ez da izango prestatutako dirua itzultzea, baizik eta laguntza-lanak ere egin nahi izatea.

5. Gobernantza inklusibo baten eredia bermatzea.

5.2. Ekonomia solidarioak bultzatutako zenbait finantza etikoren esperientziak

Alabaina, konkretuki, ekonomia solidarioaren barruko proposamenak aztertzen baditugu, ikus dezakegu hurrengo jarduerak garatzen dituztela:

- i) Inpaktu sozial eraldatzailea sortzen duten jardunetarako finantzaketa (proiektu sozialak, ekologikoak, kulturalak edo solidarioak); horren haritik, baztertu egiten da espekulatzailerak den edozein jarduerak edo gure munduaren injustizia edo endekatzea bultzatzen duten edozein ekintza.
- ii) Herritarrei erantzukizunez aurrezteko eta inbertitzeko tresnak eskaintzea. Era horretan, herritarrek aktiboki parte hartzen dute finantzen lanabesen eraikitze eta kontrolean.

Beraz, oso argi geratzen da ekimen horien irabazi-asmorik eza. Izan ere, errentagarritasunari buruzko haien ulerkera bankuen eta finantza-arloan erabiltzen den errentagarritasunaren aurrean guztiz alternatiboa da. Horrela, bideragarritasun eta jasangarritasun teknikoak eta ekonomikoak beharrezkoak badira ere, errentagarritasuna eta onura ekonomikoak ez dira helburuak.

Bestetik, ekimen horiek ezinbestean daude erroturik tokian tokiko errealitateetan, eta harreman estua dute mugimendu sozialekin, eta ez ekonomia solidariokoekin bakarrik, alternatiba eraldatzaileak sustatzen dituzten guztiekin ere bai (giza bazterkeriaren kontrako borroka, elikadura subiranotasuna, feminismoa, ekologismoa...). Izan ere, dentsitate handiak eta inpakturik handiena bilatzen duten ekimenak (finantza etikoak kasu) aipatutako erakunde-sareetan oinarritzen dira eraikitze eta garatzeko.

Duela zenbait hamarkadatik egon dira Espainiako estatuan hurbileko aurrezkiak atxikitzen ari diren ekimenak, batez ere tokikoak, mailegu txikien bitartez, finantzatzeko ekimen eraldatzaileak edo gizarte-bazterketa izateko arriskuan dauden pertsonei oinarritzeko beharrak asetzeko. Gaur egun, finantza alternatiboko sare bat eraikitzen ari da Finantza etikoen Fiare Fundazioaren inguruan.

Banku jardueren inguruan (parabankarioak izenekoak), Coop 57ren esperientzia azpimarratzekoa da; zerbitzu kooperatiba da, eta baliabideekin enplegua, kooperatibismoa, asoziazionismoa eta solidaritatea orokorrean sustatzen dituzten ekonomia sozialeko proiektuei maileguak ematen dizkie, eta jasangarritasuna bultzatzen dute printzipio etikoetan eta solidarioetan oinarrituta. Katalunian jaio eta bertan garatu zen nagusiki, baina baditu lurraldeko atalak Andaluzian, Aragoian, Galizian eta Madrilen. Gaur-gaurkoz, 881 entitate-bazkidek baino gehiagok osatzen dute, eta 4.198 laguntzaile ditu.⁸

Eta, azkenean, *Fiare Banca Etica* finantza etikoen proiektua dugu⁹, ...finantza etikoen barruan dagoen ekimenik handiena beste sare eta mugimendu sozialekin batera. Ekonomia Solidarioaren mugimendua sustatzen dute. Bere proposamenak banku-tresna moduan lan egin nahi du herritarren aurrezkiak bideratzeko –maileguen bitartez–, balio sozial eraldatzaile handia duten proiektuei laguntzeko. Hori guztia egiten du parte-hartzea, autogestioa eta lurraldetik hurbil izatea bultzatuz.

8 2018ko abenduaren 31n eguneratutako datuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, hemen dago eskuragarri [<https://coop57.coop/ca/informacion/coop57-en-xifres>] (2019ko ekainaren 29an kontsultatuta).

9 2018ko balantze sozialari buruzko datuak. Txosten osoa ikus daiteke, ondorengo webgunean: [<https://www.fiarebancaetica.coop/eu/node/28734>] (2019ko ekainaren 29an kontsultatuta).

Eredu horrek pertsonak eta erakundeak lotzen ditu. Lurralderako Ekimen Taldeek (dagoeneko 21 estatu osoan) egitura sendo eta egonkorra osatzen dute, eta, horren bitartez, bermatu egiten da lurraldeetan sustatzea eta biltzea agenteak (bazkideak eta bezeroak) lotzen dituen interes kapitalistatik kanpoko aurrezki-maileguko ibilbide ekonomikoak. Lurralderako Ekimen Taldeek lurraldera hurbiltzen dute bankua, eta finantza etikoen kultura zabaltzen dute.

Fiare Banca Eticaren datu garrantzitsuenak azpimarratu nahi ditugu: Espainiako Estatuan, *Fiare Banca Eticaren* 2018ko datuak ondorengoak dira: 3.768.000 euro bildu ziren Kapital sozialean; guztira, 2.969 bazkide ditu. Aurrezkiak 135.808.000 euro izan ziren. 232 mailegu eman ziren, eta 43.238.000 euroko balioa izan zuten.¹⁰

Guztira, Italiako datuak barne, *Banca Eticako* Kapital soziala 71.627.000 eurokoa da. 42.935 bazkide ditu. Aurrezkiak 1.590.644.000 eurokoak izan ziren, eta 960.917.000 euro eman ziren guztira mailegutun.¹¹

6. Europako banka etikoa zenbakietan

Azken hamar urteetan, Europako estatuak 750.000 milioi euro inguru gastatu dute, egoera larrian zeuden banku pilo bat porrotetik salbatzeko. Hala ere, 23 banku etiko eta jasangarriak salbatzeko ez da ezer gastatu behar izan. Bankuok ekonomia errearen garapenerako ematen dituzte kredituak, eta gizarte- eta ingurumen-irizpide zehatzekin inbertitzen dutenez, erakutsi dute krisien aurrean erresistenteak direla.

*Europako Finantza etiko eta jasangarri buruzko Bigarren Txostenak*¹² erkatzen ditu banku etikoen egitura, hazkundea eta errendimendua, European egoitza duten eta mundu mailako garrantzia duten 15 bankuenekin. Datuak azpimarratzekoak dira:

- a) *Errendimenduak*: azken hamar urteetan (2007-2017), banku etiko eta jasangarrien errendimenduak, ohiko bankuenak baino hiru aldiz altuagoak izan dira; alegia, urteko errentagarritasuna %3,98koa izan da, eta ohiko bankuena, aldiz, % 1,23koa (baliabide propioen errentagarritasunari dagokionez). Hala ere, banku tradizionalak 2006-2007ra arte hartu ahal izan zituzten espekulazio eta zorpetzeak puztutako mozkinak. Metafora baten bidez esateko: ohiko bankuek 100 metroko lasterketa irabazi zuten, baina banku etikoek maratonia irabazten jarraitzen dute. Bestalde, aurreztaile gehienak maratoni-lasterkariak dira, eta beren aurrezkien balioa mantendu nahi dute; ez dira abiadura-lasterkariak.



Iturria: *Europako Finantza etiko eta jasangarri buruzko Bigarren Txostena*, 2018: 31 or.


10 2019-03-28an eguneratutako datuak.

11 2019-05-31n eguneratutako datuak.

12 *Europako Finantza etiko eta jasangarri buruzko Bigarren Txostena* Espainiako Finanzas Éticas Fundazioaren eta Italiako Finanza Etica Fundazioaren lankidetzari esker egin eta argitaratu da, biak ere Banca Etica sareko partaideak dira. Txosten osoa eskugarri dago ondorengo webgunean (2019ko ekainaren 29an kontsultatuta): [https://www.bancaetica.it/sites/bancaetica.it/files/web/BLOG/report_fondazione/2019%20Ethical%20and%20sustainable%20finance%20in%20Europe_ENG.pdf] (2019ko ekainaren 29an kontsultatuta).

b) *Hazkundera*: krisia dela-eta, bukatu egin da (edo mantsotu egin da oso) banku erraldoien hazkundera. Hala ere, banku etiko eta jasangarrien aktiboak, gordailuak, maileguak eta ondare garbia ia % 10 handitu dira urtean. Esate baterako: 2007 eta 2017 bitartean, banku etikoen aktiboak (inbertsioen guztizkoa, kredituak eta likidezia) % 9,66 handitu dira, batez beste; banku tradizionalenak, ordea, – % 1, urtean.

2. Grafikoa: Europako hamar banku etiko eta jasangarririk handienak, aktibo kopuruaren arabera



Iturria: *Europako Finantza etiko eta jasangarriei buruzko Bigarren Txostena*, 2018: 31 or.

c) *Laguntza ekonomia errealeri*: azken hamar urteetan, banku etiko eta banku tradizionalen arteko aldeak bere horretan jarraitu du. Erabat desberdinak diren bi banku mota dira: etikoek beren bankuak era klasikoan egituratzen dituzte, gordailuak biltzen dituzte eta maileguak ematen dituzte; tradizionalak, aldiz, bestelako jarduerak egiten dituzte (inbertsio-tituluetan, finantza-zerbitzuetan eta abarretan). 2017an, banku etikoen eta jasangarrien jardueraren guztizkoaren ia % 77 maileguak ematea izan zen; banku tradizionalena, berriz, % 40,52 baino ez zen izan.

d) *Sozialki arduratsuak diren inbertsio-funtsak*: txostenak sozialki arduratsuak diren funtsak aztertzen ditu; alegia, inbertitzen dute burtsan kotizatzen duten enpresen akzio eta obligazioetan, edo zor subiranoko tituluetan, baina ingurumen- eta giza irizpideen arabera. Finantza etiko eta jasangarrien azpiatal honetan ere ari dira handitzen zenbakiak, etengabe. Europan, "best in class" edo "industria bakoitzean onena" funts etikoetan (irizpiderik zorrotzenak hartzen dituztenak) inbertitutako ondarea % 9 igo da, batez beste, urtean, 2015 eta 2017 urteen bitartean; ia 600 milioi euro. Akzioduneria aktiboa gero eta zabaldago dago, eta, halaber, gero eta akziodun gehiagok hartzen dute parte enpresa-batzarretan, informazio zehatza eskatzeko eta enpresa-garapenerako hobekuntzak ekartzeko, hala nola ingurumen edo lan-eskubideen arloan.

Inbertsio arduratsuak aztertzen dira sakon, gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen ari baitira: erregai fosilen (ikatz, petrolio, gasa) sektoreko enpresak aldaketa klimatikoa bizkortzen dute, isurtzen dituzten berotegi-efektuko gasak direla kausa. Dagoeneko, hainbat bankuk, fundazioak, erlijio-ordenak, unibertsitateak, udalek, seguruk eta pentsio-funtsek (milak baino gehiagok) baztertu dituzte nola edo hala beren inbertsioak erregai fosiletan: 7,2 bilioi dolar guztira. Zifra oso handia da, Europako barne-produktu gordinaren % 40koa bestekoa, ia-ia. Nahiz eta Fossil Free (fosilik ez) mugimenduak gero eta jarraitzaile eta desinbertsio-hitzemate gehiago duen, oraindik ere badaude "etiko" gisa definitzen diren zenbait funts, egoskor jarraitzen dutenak inbertitzen petrolioaren aldagai zikinen eta arriskutsuenetan, hala nola eskisto-petrolioan eta harea bituminosoan.

e) *Araudia eta proposamenak*: estrukturalki, banku etikoak eta banku tradizionalak desberdinak izateaz gain, banku etikoek erakutsi dute krisietan jarkikorrangoak direla. Hala ere, premiazkoa da araudiak ezartzea estatu eta Europa mailan, ezberdintasun hori aintzatesteko eta saritzeko. Esparru horretan egin diren aurrerapenak eskasak izan dira krisiak eztanda egin zuenetik, eta hurrengo hamar urteetan finantza-sistema asko aldatu delako. Horren ondorioz, gero eta arazo gehiago omen daude sistema horretan lan egiteko. Hala ere, kezkatzekoak dira Atlantikoaren bi aldeetatik etorri diren zaharberritze-haizeak.

Zehatzago, finantza etikoen mugimenduak adore handiagoa ikusi nahi du Europako Batzordearen aldetik; izan ere, lanean ari da, zirriborro batean onartu dadin, definizio unibertsal batean, zer diren Europako inbertsio arduratsuak.

Orain arte, badirudi Europako Batzordeak ingurumenean bakarrik jarri duela arreta, eta alboratu egin dituela giza irizpideak. Hori perspektiba-akatsa da, eta Banka Etikoa, BBAGrekin eta FEBEArekin batera, ari da hori aldatzen saiatzen. Horretarako, zuzenketak egiten ari zaizkio eraberritze-proiektuari.

Europako finantza etiko eta jasangarriei buruzko bigarren txostenaren datuei erreparatzean ateratzen diren ideia eta datu nagusiak ondorengoak dira¹³:

- Europako 23 banku etiko eta jasangarrik garrantzi sistemikoa dute 15 bankurekin (handiegiak erortzeko). Hau da, Europan dauden 23 banku etikoen hazkunde edo errentagarritasun zifrak alderatu egin daitezke Europan egoitza duten munduko 15 banku garrantzitsuenekin, azken hamar urteetan. Banku etikoen eta jasangarrien zerrenda horrek, besteak beste, La Caixa de Pollença, Italiako Banka Etika edo Triodos holandarra biltzen dituenak, azken hamar urteetan banku tradizionalak baino hiru aldiz errendimendu handiagoa lortu du.
- Finantza-krisia hasi zenetik, urteko batez besteko errentagarritasuna % 3,98koa da; banku tradizionalena, aldiz, % 1,23koa. Aktiboan, gordailuen, maileguen eta banku etikoen eta iraunkorren ondare garbiak ere, urteko % 10 inguruko hazkunde-zifrak ematen ditu. Finantza-sektore orokorren portzentajeetatik asko bereizten diren datuak dira. Adibidez, 2007tik 2017ra, aktiboak, eta, beraz, banku etikoen inbertsioak, kredituak eta likideziak, batez beste, % 9,66 hazi dira urtean, ohiko banketxeen % 1aren aldean.
- Banku sistemaren funtzio primarioa, biztanleriaren sektore baten aurrezkia beste sektore baterantz bideratzea, hein handi batean, galdu egin da. Hala ere, txostenaren arabera, finantza etikoek ekonomia errearen alde egiten dute, mailegu bidez, enpresa produktibo eta espekulazio gabekoei maileguak emanaz. 2017an, banku etiko eta jasangarrien jardura osoaren % 77 kredituen emakida zen. Ohiko bankuetan, jardura hori % 40,52 baino ez da. Txosten horretan aztertu diren hamar urte horietan, banku etikoek % 11ko maileguak izan dituzte urtean batez beste, eta banku tradizionalak, berriz, % 1koa.
- 2007 eta 2017 urteen bitartean, banku etikoek, batez beste, % 11ko urteko hazkundea izan dute maileguetan. Banku tradizionalak, % 0,94koa. Gordailuei dagokienez, bezeroen konfiantza eta horrelako erakundeetara aldatzeko joera erakusten duen datua honakoa da: 2007. eta 2017. urteen artean, banku etikoek % 11ko hazkundea izan dute batez beste. Ohiko bankuek, berriz, % 2koa.
- Europako banku etikoen ondare garbia hazi egin da hamar urtean: % 10 urteko. Banku tradizionalena, aldiz, % 4. Europan, "best in class" edo "industria bakoitzean onena" funts etikoetan (irizpiderik zorrotzenak hartzen dituztenak) inbertitutako ondarea % 9 igo da, batez beste, urtean, 2015 eta 2017 urteen bitartean: ia 600 milioi euro.
- Finantza-krisia piztu ondoren, argi eta garbi ikusi zen finantza-industriaren negozioaren zati handi bat finantza-produktu konplexuekin edo bestelako inbertsio-tresnekin espekulatzeko oinarritzen zela. Higiezinaren alorreko negozioaren amiltzearen ondorioz, banketxeek neurritz kanpo handitu dituzte komisiak, beren etekinaren zati handi bat modu horretan ateratzeko.

13 Europako Parlamentuan, 2019ko otsailaren 6an, aurkeztu zen.

7. Ondorio gisa: finantza etikoen zenbait erronka

Zein da finantza etikoen irakaspen garrantzitsuenetako bat? Jendeak ezartzen edo baimentzen dituen pribilegio- eta kalte-sareen bitartez eraikitzen dela desberdinkeria.

Desberdinkeria-sare horietan harrapatuta gaude? Bai eta ez. Desberdinkeria-sare horiek sare materialak eta sinbolikoak dira; banandu egiten gaituzte, hierarkikoki ordenatzen gaituzte eta abantailen eta desabantailen banaketa asimetrikoak eragiten dituzte. Alabaina, ez dira estatikoak. Berdintzen gaituzten eta desberdintasunak murrizten laguntzen duten sare solidarioak eraikitzeko gai gara. Desberdinkeria-sareak eratu eta desegin egin daitezke, sare horiek sortzen eta aldatzen dituzten prozesuak analizatuz.

Finantza etikoei buruzko ekonomia solidarioaren ikuspuntuak laguntzen digu eguneroko erresistentzian eta gizarte-egituran dituen ondorioak ateratzen eta azpimarratzen. Halaber, urraketak eta oztupoak hainbat ekimenen bidez gainditzen eta desberdinkeria zalantzan jartzen ere laguntzen digute. Ekonomia solidarioaren helburua da komunitate eta elkarteetan solidaritate-loturak indartzea, irabaziak edo boterea lortzea helburu ez duten proiektuak martxan jartzeko. Horrela, desberdinkerien aurka egitea du helburu, tradizionalki baztertuta egon diren biztanle-sektoreei zehazki zuzendutako ekintzen bitartez.

Benetako alternatibarik badago? Bai eta ez. Eguneroko bizitzaren finantzarizazioak arlo finantzario tradizionaleko kreditu-jokabideen heterogeneotasuna agerian utzi du, baita kredituaren merkatu formaleko tresnak eskuratu eta erabiltzeko lotura sozialen aprobetxamendua ere (Langley, 2008). Bankuek, mailegu-zerbitzu finantzario arautuek, merkatu handiek, kreditu-txartelen enpresek eta abarrek sustatu dituzten jokabide batzuk elkarrekikotasun-dinamiken bitartez gauzatzen dira, baina ezin da esan transformatzaileak direnik, kontrakoa baizik: eguneroko bizitzan desberdintasunak eta menpekotasuna hedatzen laguntzen dute.

Kapitalismoak utopia ahaltsua garatu du gizakiaren inguruko ikuspuntu jakin batean oinarrituta, *homo economicus*aren ikuspuntuan, alegia, eta antropologia zehatz batekin. Lan honetan garatu den proposamena merkatuaren utopiaren salaketan eta kritikan oinarritzen da: historiako utopiarik handiena da, gizarte guztiz kapitalista bat, berrehun urtez baino gehiagoz menperatu gaituen arrazoi ekonomikoaren menpe dagoena. Desberdinkeria, bere adierazpen guztietan, kapitalaren logika horretako errealitate baten adierazpena baino ez da.

Marcusek logika kapitalista zein indartsua den azpimarratu zuen. Marcusek zioenez, alternatibak sortzea eta ezartzen dituen mugez haraindi pentsatzea galaraziz eraikitzen du subjektuaren esperientzia. Ekonomia kritikoak eta solidarioak utopia hori azpikoz gora jartzea proposatzen du, ziur dagoelako ezin dugula aho batez pentsatu "bizitzak diruan, salgaietan eta salerosketan oinarrituta egoten jarraitu behar duela. Utopia ikaragarri bat da, eta bere ondorioak gure begien aurrean ditugu" (Jette, 2011: 219-220). Logika hegemoniko horrek inposatzen duen dinamikaz haraindiko esparruak sortzea proposatzen du, "nagusitasun kapitalistaren hutsuneetan jardunez eta sare horretan zuloak eginez" (Velasco, 2013: 97). Erronka honako hau da: "baliabide ekonomikoak ekonomia solidario gisa inbertitzea" (Ibidem: 118).

Lan honetan, finantza etikoaren ekimenen zutabeak azaltzea izan da gure asmoa. Haren zentzua, izaera, eta irismena ulertu ahal izateko, zenbait alderdiri garrantzia eman diogu. Horretarako, lehenik, azpimarratu dugu eraldaketa sozialarekin duen izaera politiko konprometitua. Izaera hori loturik doa mailegu-eskubidea aintzatestearekin. Konklusio gisa, ibilbide honetan, ondorengo puntuak nabarmendu ahal ditugu:

- Finantza etikoek ekidin ezinezko dimentsio politikoa dute; izan ere, haiei dagokie gure gizartearen esfera publikoa eratzea. Dimentsio politiko horretan, finantza etikoek aurrezkoa eta mailegua lotzeko erronka hartu dute, eta batzen ditu mailegu-eskubidearen aitortzak eta betetze eraginkorrak eskatzen duten eskubide-behar oreka horretan dauden agenteak. Perspektiba horrek legitimatzen du Estatuak finantza etikoak onura publiko gisa aintzatestea.
- Lotura horrekin, ekonomia solidarioa izendapenarekin ezagutzen dugun finantza etikoen proposamen politikoa arlo ekonomikoa eraldatzeko proposamenen barruan sartzen da. Bi norabide ditu: batetik, arlo horri finantza-tresnak ematea; eta, bestetik, arlo hori osatzen duten entitateak deituz proiektu bat eraikitzea.

- Finantza etikoak mailegura hurbiltzea guztiz birsortzailea da, beren jarduera bideratzen baitute, bereziki, finantza-sistematik bazterturik dauden pertsonengana. Finantza etikoek lanabes finantzarioa eskaintzen diete haiei injustiziaren kontrako borrokan, bai eta kausak eta ondorioak gainditzeko konprometituta dauden erakunde guztiei ere.
- Finantza etikoen proiektuek, beren egitura sozialaren eta eraikitze eta hazteko estrategiaren bitartez, hiru ezinbesteko konpetentzia finkatu nahi dituzte: i) beren jarduerak injustuak diren errealitateetara bideratzea; ii) mailegua inklusio sozialeko beste lanabes batzuekin lotzea; eta iii) errentagarritasun ekonomikoak dakarren blokeoa ekiditea.
- Etikaren erronkek duten izaera dinamikoak eta multifaktorialak dakar finantza etikoen "sistemak" eratzea. Era horretan, aipatutako erronka horiei egokitu ahal zaizkie hainbat jardute: lan kulturala, eragin politikoa, banku jarduera edo finantza bitartekotza parabankarioa.

Bibliografia

- ASKUNZE, Carlos (2014): "Más allá del Capitalismo. Alternativas desde la Economía Solidaria", *Documentación Social* (168), 97-116.
- BAUMAN, Zygmunt (2011): *Daños colaterales: desigualdades sociales en la era global*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- CARRASCO, Cristina (2006): "La economía feminista: una apuesta por otra economía", hemen: Vara, María Jose (Koord.), *Estudios sobre Género y Economía*, Akal, Madril, 29-62.
- CARRASCO, Cristina (2013): "El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía". *Cuadernos de Relaciones Laborales* 31(1), 39-56.
- COHEN, Gerald Allan (2000): "Libertad y dinero". *Estudios Públicos* (80).
- CORAGGIO, Jose Luis (2011): *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*, Abya-Yala, Quito-Ekuador.
- DE LA CRUZ, Cristina (2013): "El alcance político de las finanzas éticas", en Banca Ética: ¿es posible? *Dossier Economistas sin Fronteras* (8). Hemen dago eskuragarri: [<http://www.ecosfron.org>]. (2019ko maiatzaren 10ean kontsultatuta).
- DE LA CRUZ, Cristina (2014): "Una lectura feminista sobre el carácter político y el poder emancipador de las finanzas éticas", hemen REAS (Koord.) *Sostenibilidad de la Vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, Reas Euskadi, Bilbo, 80-95.
- GRAEBER, David (2012): *En deuda: una historia alternativa de la economía*, Ariel, Bartzelona.
- ILLOUZ, Eva (2013): "Contra el deseo" *La Maleta de Portbou. Revista de Humanidades y Economía*, 1.
- INGHAM, Geoffrey (2004): *The nature of money*, Polity Press, Cambridge.
- JAPPE, Anselm (2011): *Crédito a muerte. La descomposición del capitalismo y sus críticos*, Pepitas de Calabaza, Logroño.
- LAZZARATO, Maurizio (2013). *La fábrica del hombre endeudado. Ensayo sobre la condición neoliberal*, Amorrortu, Buenos Aires.
- LOPEZ, Isidro (2013): "Crédito" hemen: ZENBAITEN ARTEAN: *Lugares comunes. Trece voces sobre la crisis*, Lengua de Trapo, Madril.

- OSORIO, Jaime eta VICTORIANO, Felipe (arg.) (2012): *Exclusiones. Reflexiones críticas sobre subalternidad, hegemonía y biopolítica*, Anthropos, Bartzelona.
- OVEJERO, Felix (2008): *Incluso un pueblo de demonios: democracia, liberalismo, republicanismo*, Katz, Madril-Buenos Aires.
- PEREZ, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía*, Traficantes de Sueños, Madril.
- SASIA, Pedro Manuel eta DE LA CRUZ, Cristina (2008): *Banca ética y Ciudadanía*, Trotta, Madril.
- STIMILLI, Elettra (2014): "Culpa y sacrificios. Ejercicios para una vida endeudada", *La Maleta de Portbou*, 3, 44-49.
- VELASCO, Demetrio (2013): *Fascismo social: políticas del miedo y servidumbre voluntaria. ¿Qué hacer?*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- YOUNG, Iris Marion (2000): *La justicia y la política de la diferencia*, Cátedra /Instituto de la Mujer/ PUV, Madril.
- YOUNG, Iris Marion (2011): *Responsabilidad por la justicia*, Morata, Madril.
- ZELIZER, Viviana A. (2011): *El significado social del dinero*, Fondo de Cultura Económica, Madril.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eguirena, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- 12. Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
- 13. Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
- 14. Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.

